

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### LURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZAREN SAILA

#### Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

#### **Onespena ematea Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko 3.1/1-3.1/2 eremuko "Kuartelen etxadia" Barne Berrikuntzarako 7. Plan Bereziaren 5. aldakuntzaren proiektuari, eta hasierako onespena ematea aldaketa horri**

Hau erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko uztailaren 2an egindako ohiko bilkuran:

1. Onespena ematea Gasteizko HAPOk 3.1/1-3.1/2 eremuko "Kuartelen etxadia" 7. plan bereziaren 5. aldaketaren proiektuari, zein Arabako Foru Aldundiak sustatu baitu.

2. Hasierako onespena ematea Gasteizko HAPOk 3.1/1-3.1/2 eremuko "Kuartelen etxadia" 7. plan bereziaren 5. aldaketari, dossierrean jasotako agiriarekin bat. Hasierako onespen hori ingurumen-txosten estrategikoaren emaitzen arabera izango da.

3. Dosiera jendaurrean jartzea, hogeitau egunerako gutxienez, ALHAOn eta zabalkunderik handieneko egunkarian edo egunkarietan iragarkiak argitaratuz, horrek eragiten diola uste duen orok aztertzerik izan dezan, baita egokitzen dituen alegazioak edo oharra aurkezterik ere.

Dosiera Gasteizko Udalaren Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuan egongo da ikusgai —Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25—, adierazitako epean.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko uztailaren 2an

*Alkate-lehendakaria*  
**GORKA URTARAN AGIRRE**